



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

205eko abenduaren 2ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko abenduaren 2an arratseko zortzietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ezin etorriak: AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, GOICOECHEA Iñaki

Saioko idazkaria: IDIART Claudine

Deialdiaren data: 2025eko azaroaren 28a

Afixatze data: 2025eko azaroaren 28a

3. ERABAKIA: ARDURADUN NAGUSI ENPLEGU BATEN SORTZEA GRADUZ AITZINATZEKO ESPARRUAN

(4.1.5 nomenklatura)

Lan-postuen eta betetzen diren eginkizunen bilakaera kontuan hartzeko, Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio herriko etxeko idazkari nagusi enplegu bat sortzea, zeinak arduradun nagusi gradua izanen baitu, herriko etxeko idazkaritza eginkizunen betetzeko.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

Herri Biltzarrak,

ERABAKI DU, 2026ko urtarrilaren 1etik goiti denbora osoko herriko etxeko idazkari nagusi postu bat sortzea, arduradun nagusi gradukoei irekia izanen dena.

ZEHAZTU DU, urteko aurrekontuan kreditu nahikoa badela horretarako.

Jardunean diren kideak: 15

Presente zirenak: 12

Adierazi diren bozkak: 12

ALDE: 12

KONTRA: 0

ABSTENTZIOA: 0

Goiago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

Ortzaizen, 2025eko abenduaren 4an

Auzapeza Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,

2025eko abenduaren 8an argitaratu edo jakinarazi ondotik eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.